

## EDITORIALA

### Zaharkituak

Beti leporatu izan zaigu sindikatuoi zaharkituak gaudela, lehengo moldetan aritzen garela, modernizatu, eraberritu behar dugula, egungo errealitatera egokitu... Hori eta antzeko hamaika topiko. Hori plazaratzen dutenok beti berberak dira, hain zuzen sindikalgintza bigarren mailan jarri nahi duten duten horiek, gobernuen politiken laguntzan bakarrik ikusten gaituzten horiek, interes ekonomikoen bozeramaile diren horiek... Beti berdinak eta beti berdin.

Nahita saldutako zaharkituaren irudia irudikeria bihurtzen da, gure kasuan behintzat. Lan erreformek eta negoziazio kolektiboarenak ere lan harreman kolektiboa, sindikatua, ahultzea dute helburu, eta horretarako esku artean genituen tresnak lausotu edota ezabatu dituzte, norbana-bakardadera bultzatu nahian. Gure artean geratzeko etorri den egoera horri zintzoki, bere indarren baitan, baina borondate sendoaz aurre egiteko erabakia hartu duen sindikatua zaharkitua? Ez horixe. Bere burua eraberritzen bere izanari erantzuteko, langile klasearen beharritan taxuz heltzeko antolatze moldeak egokitzen duen eragileari zaharkitua dagoela esateak ere!

Ezarri diguten marko estuaren hesitik atera nahian hainbat sindikatu eta eragilek, eskuz-esku hartuta, bestelako egoera batetara heltzea erabaki dugu. Eta horretarako gizar-teari, oro har, gure proposamenak helarazteko hautua egin dugu. Injustizia soziala sortzen duen eredu kapitalista honen aurrean alternatibak egon badaude, eta horien alde apustu sendoa egiten dugu. Lan zentrotan, sektoreetan, biltokietan, harreman esparruetan, kaleetan... eredu alternatiboa ozen aldarrikatzeko prestu gauden eragileak batu gara gizar-tearen gehiengoaren atxikimendua jasotzeko asmoz eta agerian uzteko egungo politika publikoen zekenkeria.

Zaharkituak gu? Trapu zaharrak bezain zaharkituak dira interes ekonomikoen menpe daude agintari politiko eta patronalak, baita beren bozeramaileak ere, saiatu saiatzen badira ere hitzen jokoen nahasian beste irudikeria azaltzen. Interes ekonomikoak betiko nahi zaharra du: beren etekinak handitu, edozeinen edo guztien kaltetan bada ere. Eta hizkuntza gozoz itxuratu nahi badu ere, ezin du. Hitzen atzean esanahia dago.

**ELAk azpikontratazioaren inguruan garatutako Legegintzako Herri-Ekimena bultzatzeko mobilizazioa egingo du ekainaren 12an Gasteizen**

## "EZ DUGU ONARTZEN HERRI EKIMEN HAU DESITXURATZEA"

**A**dministratio publikoan dagoen prekarietatearekin amaitu asmoz gure sindikatuak azpikontratatuak langileen eskubi-deak bermatzen dituen Legegintzako Herri-Ekimena jarri zuen martxan 2013ko urrian. Arazo hau jendartean zabaldu asmoz gure sindikatuak kanpaina erraldoia egin zuen; horren emaitza izan zen ekimenak lortutako babes izugarria: 109.396 lagunek sinatu zuten ELAren ekimen hau.

Hilabete batzuk geroago, 2014ko ekainaren 26an, Eusko Legebiltzarrak ELAren Legegintzako Herri-Ekimena tramitera onartu zuen, EH Bildu, PSE-EE eta UPD alderdien aldeko bozekin; bere aldetik, EAJ eta PP abstenitu egin ziren. Egun horretatik aurrera administratio publikoak azpikontratutako langileei klausula sozialak ezartzeko ekimena lege-tramitazio fasean sartu zen. Orain, alderdiek jatorrizko proposamenari zuzenketak egiteko zuten epea amaituta, klausulak lege bihurtzeko garaia heldu da. Izan ere, zuzenketa horiek lantaldean eztabaidatzeko eta Ogasun batzordeko lantaldean eztabaidatzeko garaia da.

### EKIMENARI BABESA EMATEKO EKITALDIA GASTEIZEN EKAINAREN 12AN

Asko daukagu jokoan. Izan ere datozen hilabeteetan klausula sozialak sektore publiko osora hedatu ahal izateko fase erabakigarrian sartuko gara. Hori dela-eta, eta duela urte eta erdi martxan jarritako ekimen honi babesa eman asmoz gure sindikatuak ekitaldi bat antolatu du ekainaren 12rako Gasteizen. Lehendabizi ekitaldi txiki bat egongo da; bertan idazkari nagusiak –Adolfo Muñoz, Txiki– eta negoziazio kolektiboko arduradunak –Joseba Villarreak– hartuko dute parte. Ondoren, manifestazio bat egingo da Gasteizeko kaleetan barrena.

Villarreak azpimarratzen duenez, hemendik aurrera tentu handi jarraitu beharko dugu gai honen inguruan Eusko Legebiltzarrean gertatzen dena. "Guk garatutako herri-ekimena oso argia eta zehatza zen. Hori dela-eta, ez dugu onartuko bere jatorrizko helburuak ahulduko dituen legerik. Ezin dugu ahaztu ekimenak lortutako babes zabala: 109.396 lagunek sinatu zuten EAEn ekimen honen alde. Gure ustez onartezina litzateke milaka eta milaka lagun hauei iruzur egitea. Oso gertutik zaindu beharko dugu hemendik aurrera zer gertatzen den".



*ELA ha organizado un acto el 12 de junio en Gasteiz para impulsar la Iniciativa Legislativa Popular en torno a la subcontratación*



109.396. Ese es el número de firmas que ELA entregó el 3 de abril del 2014 en la sede del Parlamento Vasco. 109.396 personas que se quisieron sumar a la Iniciativa Legislativa Popular que nuestro sindicato desarrolló con el objetivo de garantizar los derechos laborales y sociales del personal subcontratado por las administraciones públicas de la CAPV. Ahora es tiempo de luchar para conseguir que durante la tramitación parlamentaria se garantice por ley lo que recogía la ILP, sin ningún tipo rebajas en sus garantías para los derechos laborales de las y los trabajadores subcontratados.

### RECURRIDA LA LEY FORAL QUE INTRODUCÍA CLÁUSULAS SOCIALES

El Parlamento de Navarra aprobó por unanimidad el pasado 15 de enero una ley donde se incorporaba el contenido de la Iniciativa Legislativa Popular promovida por ELA para garantizar unas condiciones mínimas para los trabajadores/as subcontratados/as por las diferentes administraciones navarras. ELA calificó como una magnífica noticia la aprobación de esa ley, que venía avalada por la firma de nada más y nada menos que 14.635 navarros y navarras que secundaron la ILP.

Sin embargo, el Ministerio de Administraciones Públicas del estado español decidió recurrir esa ley –Ley Foral 1/2015, fechada el 22 de enero–. Ahora, el BOE del 18 de mayo de 2015 ha publicado una resolución que, según denuncia Imanol Pascual, responsable de ELA en Nafarroa, "es un paso previo a que el Presidente del Gobierno o los órganos colegiados ejecutivos de las Comunidades Autónomas puedan interponer un recurso de inconstitucionalidad, recurso que prevemos será inminente".

**Lankidetu!**

**La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria organizó el 5 de junio una jornada de formación en Baiona con motivo del Día Internacional del Medio Ambiente**

# ¿CÓMO DEBEMOS ACTUAR ANTE EL CAMBIO CLIMÁTICO?



Baiona acogió el 5 de junio una jornada de formación organizada por la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria con motivo del Día Internacional del Medio Ambiente. El conocido militante ecologista francés Maxime Combes fue uno de los protagonistas de la charla, en la que reflexionó largamente sobre cómo debemos actuar los movimientos sociales en relación a la cumbre internacional COOP-21, que se celebrará en diciembre en París.

Para ello, abogó porque la cumbre de París sea el momento fundacional del movimiento en favor de la justicia climática, como lo fueron Seattle y Cochabamba para el movimiento altermundialista. "Tenemos que socavar y enterrar si podemos todas las promesas tecnológicas, científicas y neoliberales que consisten en afirmar que las nuevas tecnologías, las inversiones de las multinacionales y los mecanismos de mercado pueden solucionar la crisis climática. La referencia a Seattle remite a las acciones de desobediencia civil necesarias para demostrar la ilegitimidad de todas las soluciones falsas promovidas por las conferencias de la ONU sobre el cambio climático. La

referencia a Cochabamba remite a uno de los momentos fundacionales de las luchas contra las multinacionales que pretenden apropiarse del agua, una lucha que supuso más de 180 casos de remunicipalización del agua en el mundo en 15 años. Tenemos que convertir París 2015 en el eje de la construcción de un movimiento internacional en favor de la justicia climática que sea capaz de movilizarse a largo plazo y acumular fuerza, de generar pequeñas y grandes victorias al tiempo que se cuenta una historia de movilización. Para ello, tenemos que tener programa propio sobre la construcción de nuestras acciones y alternativas", afirmó.

Después de la charla, las y los asistentes acudieron al mercado de Baiona, donde al mediodía comenzó el Tour de las Alternativas. El objetivo de esta iniciativa es el siguiente: unir mediante una bicicleta de cuatro plazas los sitios de Europa donde se han organizado iniciativas de Alternativa. En total, serán 5.000 kilómetros, y la meta final estará en París, la ciudad que acogerá la cumbre COOP-21.

IRITZIA / OPINIÓN

## ALTERNATIBAK ERAIKIZ



Kapitalismoak bere interesak inposatzen ditu. Politika oso ahul ikusten du, eta boterea metatzen jarraitzeko oztoporen bat aurrean jartzen bazaio, zalantzarik ez du egiten paretik kentzeko. Pobrezia, eskubiderik gabeko lana, arlo publikoaren merkantilizazioa negozio pribatua egiteko, kapitalaren desfiskalizazioa, besteak beste zerga-ihes eta -iruzurraren bitartez, klase- eta nazio-identitate kolektiboen suntsipena, klima-aldaketa... baita bitzta bera ere, gurea eta planetarena, bere biziraupena arriskuan jartzeraino. Kapitalismo honentzat, zeinak beste edozeren gainetik jartzen duen etekin pribatua pilatzea, horiek guztiak ahaztu beharreko ondorioak dira.

Naomi Kleinek klima aldaketaz dio ez direla "isuriak gutxitzeko beharrezko erabakiak hartu, hauek kontrajarrita baitaude kapitalismo desarautuaren oinarriekin". "Katastrofa ekiditeko egoera hobean jarriko gintuzketen ekintzek -jende gehienaren onerakoak liratekeenak- mehatxuak dira gutxien-

goa den elite batentzat, zeinak gure ekonomia, gure prozesu politikoak eta komunikabide handi gehienak erabat kontrolpean dituen". Naomi Kleinek arrazoa du; horregatik da are premia handiagoa lan eta militantzia alternati-

boan. Gobernuen osaera baldintzatzen duten hauteskundeetat haratago, zenbait eztabaida propio alboratuta gertatzen da. Inbertsio-funts handi bateko zuzendariak esan zuenez, "ulertu beharra dago (...) moneta-batasunean agintariak beren inguruan gertatzen denaren behatzaile pribilegiatuak direla eta beren erabakitzeo aukera oso mugatua dela. Politika jakin batzuk ezinezkoak dira EB barnean". Latza da gero, politikaren eginkizuna horrela definitzea. Latza, baina benetakoa. ELAK berari eta bere moduan pentsatzen dutenei esan nahi die ez dugula onartzen neoliberalismoak inposatzen duen egitura instituzional bat, hautesleak figurante huts bihurtzen dituen egitura. Aldaketa politiko eta sozialaren aldeko militanteontzat hau da eztabaida nagusia, eta "governabilitatea"ren agendak ez luke atzeratu beharko; hain zuzen, agintzeko aukera dutenak gero eta baldintzatuago daude ezarritako mugak medio, hauek galarazi egiten baitute kapitalismoak bilatzen dituen politikei atzera eragitea. Zergatik saihesten da debate hau, baita ezkerren zati handi baten aldetik ere?

Guztion ezkutuan, EB eta AEB TTIP izeneko ituna ari dira negoziatzen, multinazionalen eta finantza-boterearen mesedetan desarautzea gero eta gehiago sakontzeko. Areago, nahi dute auzitegi pribatuek erabakitzea enpresen eta estatu mailako legeen arteko gatazkak.

Gure gobernuak itun hari buruzko jendearen ezjakintasunaz baliatzen dira -agintariak landutako ezjakintasuna, esan beharra dago-, eta itsu-itsuan ematen diote babesa ezagutzen ez dutenari, bitartean eztabaida ukatzen dutelarik. Berdin jokatu zuten europar itunarekin; lehengo lepotik burua.

Egia da ez dela erraza bizi dugun prozesuaren nondik norakoak garbi azaltzea. Patxada eta hausnarketa behar dira etsaia izan ez dadin bidea erabakitzen duena. Gure ustez, militantzia alternatiboak lan-agenda komun bat ahalbidetu behar du, erreferentzia argi batzuk ezarriko dituen; nork bere lan-esparrutik eta, noski, guztiok batera. Oinarritzakoa da erabakitzea kapitalismoa bizitzaren eta bizi-modu duinaren etsai komun dela. Neoliberalismoak ezaxola ezarri nahi du; haatik, hainbat eremutan erreferentziak eztabaidatzeko eta alternatibak eraikitzeo unea da: natura, nekazaritza, finantzak, elikadura, ingurumena, energia, klima aldaketa, aisialdia, ekonomia, lan mundua, fiskalitatea, desberdintasunaren jazarpena, trantsizio ekologiko eta sozialari esker sortutako enplegu alternatiboak ("enplegu berde" deitutakoak)... Hau dena, egungo egoeran, ez da goitik etorriko, eta irtenbidea ezin da izan ezer ez egitea. Soilik klima aldaketaren negazionistek, planeta arriskuan jartzen duten CO2 isuriaren ardurak nagusia duten enpresek ordainduta, ukatzen dute begibistakoa dena: negutegi efektuko gasen eraginez tenperatura igotzen ari dela, eta horren ondorioa katastrofeak direla. Berotze globalari buruzko datuek agerian uzten dute joera hau planetako bizitzarekin batera ezinezkoa dela.

Lurraren etorkizuna ezin da utzi errentagarritasun ekonomikoa besterik ikusten dutenen eskuetan, ezta menpeko lana eginez politikan haiek nahi dutena egiten dutenen esku ere.

Eztabaida hau ezin da mundu sindikaletik at utzi; ELAK behintzat hala uste du. 2015ean hainbat hitzordu inportante daukagu, lan hau finkatzen lagungarri izan behar direnak, sindikatuaren barnean eta beste organizazio batzuekiko harremanean. Ekainaren 5ean Baionan Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak prestakuntza saio bat antolatu berri dugu. Hiriburua lapurtu izatea ez da badaezpadako aukera: han ospatu zen 2013ko urrian lehengo ALTERNATIBA; 5ean bertatik abiatuko da Alternatiben Tourra, Europako hiri ugarietan zehar ibiliko dena, COP 21ari begira (Klima Aldaketari buruzko Mundu Konferentzia); hau urte amaieran Parisen izango da. Mobilizazio lana, goi-bilera honen garrantzia nabarmentzeko; aurreko saioek porrot egin zuten botere ekonomikoaren interesen alde egiten duten herrialdeen betoagatik.

Baionakoaz gainera, Euskal Herrian badira aurten beste hitzordu batzuk (Europako hainbat hiritan bezala): Ekainaren 5 eta 6an Donostiako *Alternatiben herrixka*, eta, bereziki urriaren 24an Bilbon egingo den Alternatiben Herria nabarmendu beharra dago. Jarduera honetan praktika alternatiboaren merkaturatzea izango da, tokiko produktuak, artesautza, haurrentzako jolasak, tailerrak, eztabaidak eta jai giroa. ELAK dei egiten die bere militanteei ekitaldi hauetan parte har dezaten.

**Adolfo Muñoz, idazkari nagusia**



## LABURREAN / BREVES

### ● Europar Parlamentua TTIP hitzarmenaren eta multinazionalen alde, beste behin

“Etsigarria”. Hala baloratzen du ELAko nazioarteko arduradun Laura Gonzalez de Txabarrik maiatzaren 28an Europar Parlamentuko Nazioarteko Merkataritza Batzordean egondako bozketa. Izan ere, egun horretan, batzorde horretako ordezkarien gehiengoak ISDSak –multinazionalen inbertsioak babesteko auzitegi pribatuak– mantentzearen alde bozkatu zuen.

“Emaizta hau TTIP hitzarmenaren aldeko beste urrats bat da. Europako Parlamentua beste behin merkataritza eta inbertso hitzarmen hau sustatzen ari diren multinazionalen morroi gisan agertu da. Izan ere, onartu berri duten ebazpenak epaitegi horiek mantentzearen aldeko hautua egiten du. Oso gogorra da erabaki honen atzean dagoena. Izan ere, multinazional batek uste badu estatu baten arau batek kalte egiten diola estatu hori salatu ahal izango du bere interesak defendatzea helburu duen epaitegi pribatu batean. Finean, kapitala eta multinazionalen interesak estatuen interesen gainetik jartzea suposatzen du”.

### ● Dagoeneko 19 hildako lan istripuetan

Ekainaren lehenean I.M.L.R izeneko langilea hil zen Olaberriako Construcciones Metálicas Ogei enpresan izandako lan-istripuan. Urtea hasi zenetik 19 langile hil dira Hego Euskal Herrian lanean ari ziren bitartean. ELAk salatzen duenez, istripu honetan gertatutakoak primeran islatzen du gure sindikatuak behin eta berriz errepikatzen duena: lan segurtasunaren eta osasunaren inguruko politikek, langile guztion lan-baldintza duin eta seguruak bermatzetik urruti, prekarizazioa eta honen ondoriozko ezbehar kopurua handitu baik ez dute egin.



### ● Akordio bikaina Oñatiko Hijos Juan de Garay enpresan

Maiatzaren 27an langileen ordezkariak akordioa lortu zuten Oñatiko Hijos Juan de Garay enpresako zuzendaritzarekin; langileek aho batez berretsi zuten akordioa asanbladan. ELAk Deba eskualdean duen arduradun Patxi Zubizarretak oso irakurketa positiboa egiten du metaleko enpresa honetan lortutako akordioaren inguruan. “Akordioa oso ona da. Soldata igorak nabarmenak dira –2015an %1,3 eta KPI+1,7 2016an, gutxienez %1,7 hori bermatuz–; baimen eta lizentzietan onura ugari lortu dira; gaixotasun arruntetako jarraipenerako mutualitateak kanpoan uzten dira, langileon osasunarekin inork negoziarik egingo ez duela bermatuz; lan-erreformaren aurkako artikulak ezartzen dira; hitzarmena betetzen dela bermatzeko neurriak ageri dira... Noski, oso pozik gaude”.

Lortutakoaren garrantzia azpimarratzeaz gain, nola lortu den bereziki aipatu behar dela nabarmen-tzen du Zubizarretak. “Langileen antolaketa eta borroka ezinbestekoak izan dira. Kontutan izan behar dugu akordioaren bezperetan langileek lanuzteak egin zituztela, eta greba deialdi mugagabea iragarrita zegoela. ELAk gehiengo oso zabala du enpresa batzordean –13 kidetik 8– eta prozesu osoan zehar egindako lana goraiatu nahiko nuke”.

“Industria eta Eraikuntza federazioak Eibarren egin berri duen jardunaldian –nabarmetzen du Zubizarretak– aipatu genuen erasora jotzeko ordua zela. Egun horretan aipatu genuen guztia laburbiltzen du Hijos Juan de Garay enpresan lortutako akordioak. Lan hitzarmen honek agerian uzten du antolakuntza eta borrokaren bitartez lan hitzarmen duinak lor daitezkeela, lan erreforma enpresen atarian utziaz”.

### ● TS Fundiciones-ek jabe berria du

Zestoako TS Fundiciones enpresako hartzekodunen-konkurtsua eramaten zuen Donostiako epaitegiak erabaki duenez Gonvarri izango da enpresako jabe berria. Urola-Kosta eskualdeko arduradun Amagoia Unanueren ustez albiste oso on baten aurrean gaude. “Langileen mobilizazioak mantendu du guztiz bideragarria zen industria-proiektu hau bizirik, eta borroka horri esker heldu gara egoera honetara”.

Unanuek nabarmetzen duenez albiste bikaina da bailara osoarentzat, itxita zegoen enpresa garrantzitsu bat berreskuratzea suposatzen duelako. “Espero dugu honek ere eskualdeko industria-jarduerari bultzada bat ematea. ELAtik prestutasun osoa adierazi nahi dugu lehenbailehen enpresaren jabe berriekin –Shandong Iraeta Wind Power Flanges Manufactures S.L., Gonvarri– elkarlanean hasteko; gure helburua lantokia lehenbailehen berriz ere martxan jartzea da, langileak ahal bezain azkar lanera itzuli daitezen”.

TS Fundiciones-eko langileek euren lanpostuen alde eramandako borroka eredugarriaz harantzago, Unanuek Urola-Kosta osoan izandako babesa eskertu nahi du. “Herri eta bailara oso baten babesa sentitu dugu uneoro, eta hori izugarriko bultzada izan da hilabete luzez eraman dugun borroka honetan sendo mantentzeko. Mila esker denbora honetan zehar babestu eta sostengatu gaituzten guztiei”.



### ● Langabetuen egoera, gero eta larriagoa

Enplegu Zerbitzu Publikoak 2015eko maiatzari dagozkion langabeziaren datuak argitaratu berri ditu. Bertan jasotzen denez maiatzaren 31n 206.183 pertsona zeuden Hego Euskal Herrian langabezia maiztaren 31n, apirilean baino 7.628 gutxiago eta duela urte bete baino 17.840 gutxiago. Gizarte politiken arduradun Mikel Novalek azpimarratzen duenez, “langabeziaren jaitsiera oso txikia da, eta langabeziaren maila izugarri handia da. Hego Euskal Herriko langabezia tasa %15,3an kokatzen da, egun Europako Batasuna osatzen duten 28 estatuetaoaren batzbestekoa baino 5,5 puntu altuagoa (%9,8). Gainera, ezin dugu ahaztu sortzen den enplegu gehienaren kalitatea gero eta eskasagoa dela”.

Mikel Novalek langabezia dauzen pertsonen egoera gero eta zailagoa dela ohartarazten du. “Langabezia dauzaten %58,7ak ez du inolako prestaziorik jasotzen. Hego Euskal Herrian 125.566 pertsona daude langabezia eta inolako prestaziorik jaso gabe. Eta nahiz eta langabezia 17.840 pertsonatan jaitsi izan azken urtean, prestaziorik jasotzen ez dutenak 4.459 gehiago dira”.

### ● En recuerdo de Alberto Zabala y Xabier Purroy

Los últimos días han sido muy duros para todas las personas que componen la familia de ELA y, en especial, ELA-Ertzaintza. El 23 de mayo falleció Alberto

Zabala, antiguo delegado sindical de ELA-Ertzaintza y que en la actualidad realizaba tareas sindicales en el local de Eibar. Por su parte, el día 31 de mayo falleció Xabier Purroy, miembro de nuestro sindicato en la sección sindical de la Ertzaintza. Un fuerte abrazo para las familias y allegados de Alberto y Xabier.

### ● Desestimada la solicitud de inaplicación del convenio de Ambuibérica

El Órgano para la Resolución de los Procedimientos para la Inaplicación de Convenios Colectivos Estatutarios –ORPRICCE– ha desestimado la solicitud de inaplicación del convenio presentada por la dirección de la empresa Ambuibérica. La contrata de Transporte Sanitario Urgente de Gipuzkoa –Ambuibérica– resultó adjudicataria cuando pujó con un precio que reducía en una media del 5,50% el ya reducido precio de licitación. Ahora pretendía rebajar las condiciones de trabajo para hacer frente a los costes derivados del convenio; una situación sobrevenida como consecuencia de una opción o decisión que la empresa adopta de forma deliberada y consciente.

Para ELA, la degradación de las condiciones de trabajo no pueden tener como base la negligencia de los poderes públicos y los abusos empresariales que persiguen únicamente la maximización de los beneficios. ELA recuerda, también, que nuestro sindicato puso en marcha una Iniciativa Legislativa Popular en el Parlamento Vasco para incorporar cláusulas sociales que garanticen el empleo y las condiciones de trabajo en las subcontratas públicas. La aprobación de esta ley pondría fin a actuaciones de este tipo por parte de la administración y de las empresas adjudicatarias de los servicios.

### ● “Es imprescindible emprender el profundo cambio social y político que Navarra necesita”

Mixel Lakuntza, coordinador de ELA en Navarra, destaca que los resultados de las elecciones forales celebradas en la Comunidad Foral el 24 de mayo han evidenciado el fracaso de las fuerzas políticas que han impulsado la red clientelar tejida en favor de CEN, UGT y CCOO. Por ello subraya que “nuestro sindicato desea que el nuevo escenario surgido tras las elecciones se traduzca en una fase de profundo cambio político y social en Navarra. Estamos ante una oportunidad histórica para poner fin a las políticas que han apostado por los recortes, el despilfarro, el clientelismo y el ataque a la realidad vasca de Navarra”.

### ● “Nos parece muy grave el archivo de la denuncia de las vacaciones fiscales”

Mikel Noval, responsable de política social, critica que la decisión de la Fiscalía de la CAPV de archivar la denuncia de ELA en torno a las llamadas vacaciones fiscales muestra que el sistema deja a la ciudadanía indefensa ante actuaciones ilegales. “Es muy grave que una actuación como la realizada por las haciendas de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa en el caso de las vacaciones fiscales no conlleve responsabilidades de ningún tipo, ni administrativas, ni políticas, ni penales. Nos parece impropio en una sociedad democrática. El pago con dinero público de una multa de 30 millones de euros, por el hecho ‘incuestionable’ de haber incumplido una sentencia, nunca debería quedar sin sanción para los responsables”.

### ● Osalan deja en suspenso la formación de las y los delegados de prevención de riesgos laborales

ELA quiere denunciar públicamente que la dirección de Osalan ha decidido dejar en suspenso la formación de las y los delegados de prevención, decisión que afecta a miles de delegados y delegadas, muchos de ellos recién elegidos y elegidas en el último período concentrado de elecciones sindicales. Por ello ELA exige que se reanuden inmediatamente los cursos de prevención y se impulse un sistema propio de formación para el empleo, sin plegarse al modelo estatal.

**Iñigo Zubeldia valora positivamente la primera semana de huelga indefinida, califica de indecente la última oferta de Adegí y le aconseja que asuma la realidad del sector**

## "EL 90% DE LAS TRABAJADORAS DE LAS RESIDENCIAS DE GIPUZKOA YA TIENEN CONVENIO"



**E**n la primera semana de huelga indefinida en el sector de Residencias y Centros de Día de Gipuzkoa, Iñigo Zubeldia, responsable del mismo, asegura que el conflicto está decantado. "La lectura y estrategia que hicimos y planteamos desde ELA ha dado sus frutos: a fecha de hoy casi 60 empresas, que emplean al 90% de las trabajadoras del sector, han cerrado ya acuerdos en los términos recogidos en la propuesta de la Diputación, que asumía los planteamientos del sindicato". Sin embargo, la oferta "indecente y regresiva" de Adegí en la mesa sectorial del jueves vaticina un conflicto duro ya que, tal como anuncia Zubeldia, ELA va a luchar hasta las últimas consecuencias por la dignificación del sector, como lo hizo ya en 2013 y 2014. Las espadas están en alto.

**-¿Qué valoración haces de esta primera semana de huelga indefinida en el sector de Residencias y centros de Día de Gipuzkoa?**

-La huelga indefinida iniciada el 1 de junio afecta a sólo un decena de residencias, de las que siete

han secundado la protesta convocada por ELA. Ocho, a partir del lunes, tras la decisión tomada en asamblea por la residencia municipal de Arrasate.

Es una huelga pequeña porque la mayoría de las residencias ya han firmado sus acuerdos. Así las cosas, una lógica normal haría pensar que el conflicto no debería tener mucho recorrido, sin embargo, el empeñamiento de Adegí nos hace temer lo contrario. En este sentido, ELA hace un llamamiento a las empresas del sector donde no se ha llegado a un acuerdo a que lo posibiliten, para poder concluir el conflicto a la mayor brevedad posible.

Si no es así, ELA tiene claro que mientras haya una trabajadora dispuesta a luchar estaremos allí. Mientras las patronales Lares y Adegí no asuman la realidad y se enconen en sus posturas el conflicto seguirá vivo.

**-Es evidente que las empresas que no firman acuerdos es simple y llanamente porque no quieren.**

-Así es. El acuerdo es posible en todas las residencias y centros de día del sector. Sin embargo, a día de hoy algunas empresas están imponiendo un bloqueo sistemático a sus plantillas, obligando a entrar en un duro y largo conflicto tanto a las trabajadoras y trabajadores de su plantilla como a los usuarios y sus familias. Nos parece una irresponsabilidad social tremenda.

**-Sin duda, la novedad de la semana fue la convocatoria de mesa negociadora este jueves. ¿Cómo fue la reunión?**

-Lo cierto es que se confirmaron nuestros peores augurios. Adegí convocó mesa sectorial provincial,

**Greba deialdia egun hamar zahar-egoitzetara mugatzen da. Hamar horietatik zortzik bat egin dute ELAren deialdi eta helburuekin**

tras meses de bloqueo -coincidiendo, casualmente, con el cambio político en la Diputación Foral de Gipuzkoa- para intentar neutralizar la posibilidad de acuerdos y enquistar más el conflicto laboral en este sector.

La propuesta que Adegí puso encima de la mesa es indecente: un insulto y una humillación a las trabajadoras del sector. Propone incrementos salariales por debajo de lo acordado en esos casi 60 convenios de empresa ya firmados y la eliminación de todos los derechos sociales y laborales logrados en los últimos 3 años.

**-Visto lo visto, ¿ELA sigue apostando porque es posible un convenio sectorial?**

-Entendemos que el sector hizo en su día una apuesta por su dignificación laboral y que no hay vuelta atrás. Tras la lucha del 2013 y del 2015, a Adegí y a Lares no les queda otra que aceptar la realidad, aunque no les guste. El camino son las propuestas de Diputación y las plataformas de ELA, los convenios ya firmados en las empresas.

Si el convenio sectorial provincial asume la propuesta de Diputación y ELA, habrá convenio; si no, no.

ELA hace una apuesta inequívoca de firmar el contenido de la propuesta de la DFG tanto en el ámbito sectorial como en el de empresa; es una pelea y una estrategia integral: mismo convenio colectivo provincial y mismos convenios de empresa.

**-¿Cuál es el secreto de las victorias sindicales en las Residencias de Gipuzkoa?**

-Los logros alcanzados tienen unas bases muy claras: una mayoría representativa importante de ELA, una importante afiliación y capacidad organizativa. Con estos ingredientes las garantías de éxito son muy altas.

También destacaría el hecho de tratarse de un sector mayoritariamente femenino. En el futuro próximo vamos a ver a muchas mujeres luchando y ganando. El futuro del sindicalismo es femenino. Y si Adegí y Lares no han aprendido todavía la lección... lo acabarán haciendo.

**www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook**

**ELA** **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**

**Franqueo concertado  
nº 08/207**